

Urtebete

kontratazio publiko elektronikoa sustatzen

pr@st



Aurkibidea

- 2006 osoan egindako ahalegin itzela
- Enpresak sailkatzeko zerbitzuaren web presentzia berria
- "Kontratazio elektronikoaren jardunaldia" Madrilen



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SALA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA



Editoriala

2006 osoan egindako ahalegin itzela

Kontratazio elektronikorako bitartekoak behar adina eta orokorrean ezartzeko, Eusko Jaurlaritzak 2006an eredia bultzatzeko ahalegin handia egin du.

Kontratazio elektronikorekin onurak nabarmenak diren arren, Eusko Jaurlaritzak ohartzen da informazio gizartea eta administrazio digitala oso makal doazela aurrera. Horregatik, beharrezkotzat jo izan du ahalegin berezia egitea enpresei laguntzen.

Horrela, bada, 2006an dokumentu ugari sortu da, 13 katalogo eta kontratazio elektronikorako, "Prest" aldizkariaren 4 argitalpen, 4 mailing postal igorri dira, 16 Hedapen Jardunaldi izan dira. Era berean lan handia egin da kontratazio publiko elektronikorekin hedaturaren, abantailen eta erabiltzeko baldintzen berri emateko. Horietan 863 lagun izan dira, 701 enpresa ordezkatu. Gainera 34 prestakuntza ikastaro prezentzial eman dira. 220 enpresetatik, 395 lagun izan dira ikastaro horietan. Administrazio barruan 101 lagun prestatu dira, kontratazio teknikariak denak, Eusko Jaurlaritzako 11

Sailtakoak eta 5 erakunde autonomiadunetako ordezkatuak.

Emaitzak hauek izan dira, laburbilduz, Jaurlaritzako 12 Sailek, erakunde autonomiadunek edo erakunde publikok kontratazio elektronikoko espedienteak igorri dituzte, guztira 29. Horietatik %65ek eskaintza digitalak jaso dituzte, eta igorritako espedienteen aurrekontua 49.248.640 eurokoa izan da.

2006an egindako lanarekin jarraitzeko, legegaldi honetan marketingeko, hedapeneko eta prestakuntzako ahaleginak bikoiztea

Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandako enpresetan kontratazio elektronikorekin erabileraren sustatu nahi izan dugu

aurrikusten dugu, kontratazio elektronikoko 100 espediente igortzea gure helburua izanik.

Era berean, eboluzio teknologikoarekin jarraituko dugu, prestazio berriak hedatuko ditugu eta e-administrazioaren plataforma berriak baliatuko gara, Eusko Jaurlaritzako administrazio eta gobernu elektronikoko ekimen estrategikoaren bitartez garatu izan den sistema berritzailearen abantail guztietaz baliatuz.

2007rako gure helburua jakina da: eskaintza elektronikorekin erabilerara behin betiko irakatsi, kontratazio administratiboaren 18/2004/EB zuzentarauak eta Arlo publikoko kontratuei buruzko Lege proiektuak soilik modu elektronikorekin egingo diren kontratuen tipologia berriak aurreikusten baititu.

Jaime Domínguez-Macaya Lurnaga
Ondare eta Kontratazio Zuzendaria
Eusko Jaurlaritzak

Albisteak



Osakidetza osasun arloan Estatuan egingo diren lehenbiziko eskaintza elektronikoa prestatzen ari da

Eusko Jaurlaritzako kontratazio ereduak idazkaritza teknikoarekin elkarlanean, Osakidetza-Servicio Vasco de Salud prestatzen ari da hiru eskaintza elektronikoko pilotu egiteko.

Aukeratutako espedienteen helburua

osasun arloko kontsumagarriak eta botikak kontratatzea da.

Espediente horiek igortzearekin batera, berriazko aurkezpenak egin dira osasun eta botiken sektoreko enpresetan Madrilen,


Bartzelonan eta Osakidetza egoitza nagusian.

Kontratazio elektronikoa hauek oihartzun handia izan du enpresa munduan, Estatu espainiarrean osasun arloan egindako lehenbiziko eskaintza elektronikoa izango baitira.

Osakidetza lehenbiziko urrats horiek abiatzeko plan oso baten barruan sartzen dira, eta plan horri esker 2007an bere erakunde guztietan ezarriko du kontratazio elektronikoa.

Enpresak sailkatzeko zerbitzuaren web presentzia berria

Eusko Jaurlaritza kontratazio publiko elektronikoa hedatzeko egiten ari den ahaleginaren elementu berri bat garatu da, Euskadiko enpresak sailkatzeko zerbitzuaren web presentzia berria.



Web presentzia berri hori garatzeko, Eusko Jaurlaritzaren interneteko presentziaren eredu definitutako estandarrak erabili dira, eta helbide hauetatik sar daiteke:

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa

Enpresaren sailkapena ezinbesteko baldintza da 120.202,42 euro edo gehiagoko aurrekontua duten obren edo zerbitzuen kontratuak lizitazioetan parte hartu ahal izateko. Erregistro publikoa da, eta Administrazioak kontrata ditzakeen enpresen kaudimen juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa bermatzen du.

Esteka berri horretara joz gero ikusten denez, eskaintzen den informazioak sailkapeneko jardura alor guztiak hartzen ditu, eta honako

atalak ditu:

- Lanak eta Zerbitzuak Kontratatu dituzten Enpresen Sailkapena
- Sailkapena tramitzeko prozedura.
- Sailkapena berritzeko baldintzak
- Sailkatutako enpresei buruzko informazioa bilatzea.
- Sailkapen zerbitzuari buruzko ohiko galderak.
- Araudia.
- Inprimakiak jaitsi.

Besteak beste, "galdera ohikoenak" izenburuzat duen atala irakurtzea merezi du. Atal horretan Erregistroak bere 20 urtean izan dituen zehaztasunak eta galderen erantzunak daude, sailkapen teknikariei gehien galdetu zaizkienak, hain zuzen ere.

Kopurua

Dagoeneko

701 enpresa

izan dira kontratazio publiko elektronikoa ereduaren aurkezpenan

Pertsona

José Ignacio Familiar
LKS S. Coop-ekoa



José Ignacio Familiar da kontratazio elektronikoa buruzko prestakuntza arduraduna. Prestakuntza hori Eusko Jaurlaritzako kontratazio teknikariei eta eskaintza egiten duten enpresei eman zaie.

Kontratazio publiko elektronikoa buruzko informazio guztia ingelesez

Ingeleseko bertsio bat egin da kontratazio publiko elektronikoa eredu web presentziari buruz.

Era berean, laburpen liburuxkaren bertsio bat ere bada ingelesez.





Unibertsitateko Zuzenbide Administratiboko irakasleak eta Zuzenbide fakultateko dekanok.

- Kontratazio elektronikoa sektore publikoko kontratazioari buruzko Lege proiektuan. Jaime Domínguez-Macaya Lournaga jaunak hartu zuen parte, Eusko Jaurlaritzako ondare eta kontratazio zuzendariak.
- Kontratazio publiko elektronikoaren ereduaren aurkezpen zehatza, Eusko Jaurlaritzako kontratazio elektronikoko ereduko idazkaritza teknikoko kideek egina.
- Camerfirma: enpresentzako sinadura elektronikoa. Alvaro Domingo Garciaren eskutik, Camerfirmako zuzendari komertziala.

Jardunaldiak oihartzun dezentea izan zuen Madrilgo enpresetan, batez ere osasun eta farmazia alorrekoetan eta puntaraino bete zen Velázquez hoteleko aretoa.

Arratsaldean, Eusko Jaurlaritzako kontratazio elektronikoko ereduko idazkaritza teknikoko kideek prestakuntza ikastaro praktikoa eman zituzten, Madrilgo enpresek lizitazio elektronikokoaren aplikazioa maneiatzen ikasteko.

Jardunaldia zela eta, Izenpek, euskal administrazio publikoetako zertifikazio elektronikoko zerbitzuko enpresak, Madrilera eraman zuen txartel elektronikoa egiteko bulegoetako bat. Hori dela eta, jardunaldira joan ziren enpresek elektronikoki eskaintzak egiteko nahitaezko baldintzetako bat eskuratu ahal izan zuten eta horren funtzionamendua bertatik bertara ikusi.

"Kontratazio elektronikokoaren jardunaldia" Madrilan

Eusko Jaurlaritzaren hornitzaile kopuru esanguratsu baten egoitza Madrilan dagoenez, kontratazio elektronikoko ereduko idazkaritza teknikoak Inforboe S.A. enpresaren gonbita onartu zuen jardunaldi batera joateko. "Kontratazio elektronikokoaren jardunaldia" izeneko hori azaroaren 29an izan zen Madrilgo Velázquez hotelean.

Eusko Jaurlaritzatik Jaime Domínguez-

Macaya Lournaga jauna joan zen, Eusko Jaurlaritzako ondare eta kontratazio zuzendaria eta kontratazio elektronikoko ereduko idazkaritza teknikoko kideak ere izan ziren.

Jardunaldian gai hauek aztertu ziren:

- Sektore publikoko kontratazioari buruzko Lege proiektua. José María Gimeno Felu jaunak hartu zuen parte, Zaragozako



Osalanek modu elektronikokoan kontratatu dituzten Araba eta Bizkaiko lurralde zentroak garbitzeko zerbitzuak

OSALAN - lanerako segurtasun eta osasunerako euskal erakundeak bi espediente aukeratu ditu Araba eta Bizkaiko lurralde zentroetako garbiketarako zerbitzurako hornitzaileak aukeratzeko. Osalan da Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren barruko lehenbiziko


erakunde autonomiaduna, kontratazio elektronikoko lizitazioak igortzen duen lehena.

Kontratazio elektronikoko ereduko ohar goiztiarren sistemari eta garbiketarako sektoreko enpresei espedienteak aurkezteari esker,

sektoreko enpresak kontratazio elektronikokoan prestatu dira. Horregatik, daitekeena da, datozen hilabeteetan Eusko Jaurlaritzako sail gehiagok eta erakunde autonomiadunek garbiketarako zerbitzuen kontratazio elektronikoa sustatzea.

"Euskadi.net" web guneko komunikazio kanpaina lizitazioerako eskaini da kontratazio elektronikoa bidez

Deialdi honen helburua da euskal web hori ezagutaraztea eta jende objektiboak erabil dezan sustatzea: pertsonak, enpresek eta administrazioak.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordearen mende dagoen Modernizazio eta Administrazio Elektronikoko Idazkaritza Orokorra elektronikoki lizitatzeko aukera

eman du "euskadi.net" web gunea ezagutarazteko eta internauten artean gehiago erabiltzeko komunikazio kanpainaren kontratazioa.

Kanpainaren helburuak honakoak izango dira:

- Gizarteari www.euskadi.net web gunearen marka berria ezagutarazi.
- Horko sarbidea sustatu eta hiru publiko objektibori zuzenduta dagoenez, horiek erabiltzea sustatu: pertsonak, enpresek eta administrazioak.
- "euskadi.net" web gunea administrazioaren elkarrekin aritzeko web gunea dela adierazi.

Publizitate eta komunikazio enpresei zuzendu zaie espedientea eta komunikazio kanpaina globala garatu nahi du. Horren diseinua, produktioa eta hedapena 2007an egingo da EAEn.

Lehiaketako aurrekontua 500.000 eurokoa da, eta beste kontzeptu batzuen artean honakoak kontratatuko dira:

- Telebistarako iragarki bat.
- Irratirako publizitatea.
- Kanporako publizitatea.
- Ekintza osagarriak.

Argi dagoenez, internet erabiliko denez "euskadi.net" eta kontratazio elektronikoa, bitarteko digitala naturalizat hartu da espedientea aurkezteko bideak ezartzerakoan. Bigarren espedientea da, publizitate eta komunikazio arloan, kontratazio elektronikoen mekanismo berritzaileen bidez eskaintzen dena.

Objektua

Izenperen ziurtagiri elektronikoen irakurgailu anitza

Eusko Jaurlaritzak ahalik eta sistemarik seguruenak aukera du, Izenpeko aitortutako sinadura elektronikoen ziurtagiriaren teknologian oinarritua. Besteak beste, eskaintzetako sinadurentzat eta horiek enkriptatzeko erabiliko du.

Izenpeko zerbitzuei esker, lizitazio elektronikoko aplikazioak kontratazio alderdi funtzional

kritiko guztiak bermatzen ditu.

Eskaintzetan sartzeko eta horiek berregiteko, mahaiko osagaien sinadura elektronikoen txartel guztiak jarraian erabili behar dira. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak irekiera publikoko datuetarako sarbide birtuala ematen duenez, ziurtagiri elektronikoen irakurgailu anitza erosi du prozesua azkartu eta laburtzeko.



29 Prozesu igorri edo amaitu dira 2006ko azken hiruhilekoan.

11 Eusko Jaurlaritzako areak eskaini dituzte espedienteak prozedura elektronikoa bidez, 2006an:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE-IVAP), Nekazaritza, Elikagai eta Arrantza Sailak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Lehendakariordetzak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, Herrizaingo Sailak, Ertzaintzaren akademiak, Osalanek, (Eustatek), Osakidetzak.

16 Informazio jardunaldi garatu dira.

701 Enpresa izan dira informazio saioetan.

863 Lagun izan dira informazio saioetan.

395 Lagun izan dira prestakuntza ikastaroetan.

34 Ikastaro eman dira prestakuntza presentzialekoak enpresetan.

220 Enpresa prestatu dira.

101 Kontratazio teknikari prestatu dira.

2006an lizitazio elektronikoa bidez kontratatutako ondasun eta zerbitzuak:

- Aholkularitza zerbitzuak.
- Auditoria zerbitzuak.
- Aseguruak.
- Bulegoetarako altzariak.
- Segurtasun sistemak.
- Testuen itzulpen zerbitzua euskaraz eta gazteleraz.
- Publizitatea.
- Garbiketa zerbitzua.
- Bidaia antolatze zerbitzua.
- Ertzaintzaren akademiarako soroak.
- Fotokopiagailuen mantentzen lana.
- Osasun arloko eskularruak.
- Botikak
- Zerbitzari informatikoak.

Eusko Jaurlaritzan kontratazio elektronikoa trebatu dira lehenbiziko 100 teknikariak

Ikastaroak teorikoak eta praktikoak dira eta langile publikoek espediente elektronikoen kudeaketari buruz jakin beharreko alderdi guztiei buruzkoak izan dira.



2006an Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (HAEE-IVAP) elkarlanean kontratazio elektronikoa eredu idazkaritza teknikoak zazpi trebakuntza ikastaro eman ditu kontratazio teknikarientzat. Teknikari horiek Sail bakoitzeko espedienteen kudeaketaz arduratuko dira, kontratazio elektronikoa bidez eskainitakoak izango dira espediente horiek.

20 ordu iraun dute eta ikastaroak bereziki egokitutako gela batean eman dira. Kontratazio prozesuetan parte hartzen duten pertsona mota askok hartu du parte (idazkariek, mahaiko presidentek, kontratazio teknikariek, administrariek...). Batez beste ikastaro bakoitzean kontratazio 2 unitate oso trebatu dira kontratazio elektronikoa arautzen duten mekanismo teknikoetan eta legeetan.

Prestakuntza teorikoa eta praktikoa izan da, alor legala eta ezagutza aplikatiboa aztertu dira, lizitazio elektronikoa aplikazioarekin eskainitako espedienteak prestatu eta

tratatze. Azpimarratu beharra dago emandako prestakuntzaren elementu adierazgarrietako bat lotuta zegoela lizitazio elektronikoa aplikazioaren erabilera ezagutzearekin enpresa lizitatzailen ikuspegitik. Horrela bermatu egin da Eusko Jaurlaritzako kontratazio teknikariek kontratazio elektronikoa barruko eta kanpoko ikuspegia izatea.

Prestakuntza ikastaroak izango dira 2007an ere, Eusko Jaurlaritzako 150 organo eta kontratazio mahaietako teknikari guztiak trebatu arte.

Euskal administrazio publikoko beste maila batzuetara ere zabaltzea espero da kontratazio publikoa, 2007rako interesa duten Foru eta Toki administrazioetara zabaltzea espero da. Prestakuntza hori e-administrazioa sustatzeko administrazio arteko foroaren markoaren bidez eskaini da eta horko burua Eusko Jaurlaritzako modernizazio eta administrazio elektronikoko idazkaritza orokorra da.